

Toponimia ibilaldiak II

Altsasun 2006-11-18

Kalbario (Galbaiyua)

Martina Arrizabalaga Bengoetxea, 86-02-27. (88 urte)

“Eoten zian or Pelotajokuan, an yoten zan galbaiyu. Kurutzak egurrezkuk, guai beste kurutza de, len eoten zian beste batzuk eta an esaten zein gue amak baindo zarragok, Erramuna, ezautu zela an, imen zen bat urkatu. Eta esaten zen guamak baten bat nonbaiten jarri eta urkatu ein zaila eta kontatzeko amabi edota nola kontatzen zitubein amabi ta geo ... rrra-rrra! Zertu, urkatu ein zaila.

Ta galbaiyua, lastima! Gu berriz jolastu. Altu-altua, etxainakin da.

Sarasiben alkatra yon zan, aiek kendu ta patu zitubein kurutzak arrizkuk.”

*Gaur egindako
ibilbidea beheko mapan
marrazteko gauza
izango zinake?*



(II) IBILBIDEA: Kalbario, Gaztainaxikieta, Zumadia, Sasibitarte, Otaibarren, Senidesorota, Peñizakobaratza, Ollotxe, Zaldibide, Basoitxi, Txanponazpi, Maibelo, Sanpedroko zelai, Zezenaga, Dantzaleku, Usolarrain, Sietsburu, Amandrea.

Antolatzailea: KIMA
Altsasuko euskara taldea

Altsasuko
Udala



Mank.
Sakanako Mankomunitatea



www.altsasukokima.com

Toponimia ibilaldiak II

Gaztainatxikieta (Gaztainatxikiéta)

Gaiztanchiqui, 1893. urtean.
Gaztain + kitxi + -eta (toki atzizkia)

Zumadia (Zumáia)

Zuma (erreka ertzeko landarea) + -di (multzoa)

Sasibitarte (Sasibítarte)

Sasi (lahar eta antzeko landareez osaturiko gunen itxia) + tarte (espazioa)

Otaibarren, Otaikozelai, Otaikobazter

Ota + -di + barren
Ota + -di + -ko + zelai
Ota + -di + -ko + bazter

Senidesorota

Senide + soro + -eta (toki atzizkia)

Peñizakobaratza

Peñiza (familia baten izena) + baratza

Oloetxe (olloétxe)

Oilo? + etxe
Ana M^a Etxaidek, Fontes Linguae Vasconum-eko ale batean konfirmatzen du Burundako euskararen ez dagoela bustidurarik: "oilarra".

Zaldibide (Zaldibíde)

Zaldive-Zalvide 1893. urtean.
Zaldi + bide.

Basoixi (Basoítxi)

Baso + itxia
(izen zaharra euskalduna da, ondorengoa, Montecerrao, erdal itzulpena dugu)
Gaur egun ezagutzen dugun basoa duela ehun urte inguru auzolanez egindako damero moduko landaketaren ondorioa da.
Zaintzaile bat egoten zen Basoixin gau eta egun. Txabola ere bat egin zioten. Hala ere, aldi pare batez erre egin zen.

Auzolanak: Urte baten buruan herriko familia bakoitzak sei auzolan egin behar zituen. Baso landaketa, bideak konpondu, mugak zaindu, erreka eta ibaien garbiketa... dermioa



San Pedroko basiliza.

ondo zaintzen zuten. Lanaldia luzea zen, baina ongi pasatzeko aukera ere bazegoen. Goizean gogotik lan egiten zen, baina gosaria eta gero, ardoa banatzearekin batera zaharrenak kontu kontari hasten ziren. Auzolanera agertzen ez zenari isuna jartzen zioten. Basoixin eta Txanponazpin bana *mintegi* (*mindei**) zegoen.

BASOITXIKO TOPONIMOAK: Otarreta / Txanponazpi / Txantxitakoerreka / Maibelo.

Otarreta eta Uzkuilu arteko espazioan hildako animaliak botatzen zituzten.

Otarreta (Otarréta)

Ota (landarea) + -eta (toki atzizkia)

Txantxitako erreka

Txantxita=igela

Txanponazpi (Txanponázpi)

Txanpona + azpia
Basoixiko landaketa egin aurretik haritz eta gaztainondo itzelak zeuden paraje honetan, horren handiak ziren zein XIX. mendearen hasieran Frantziako soldaduen harrapaketen beldur zenbait altsasuarrek gordetu zituztela txanponak haritz zahar haiek enbor zuloetan. Haritz haiek bota zituztenean agertu omen ziren txanponak.

OHAR HISTORIKOA: Konbentzio-gerran (1793-1795) frantsesek Nafarroako ipar alde hartua zuten eta 1795. urtean Altsasun ahal izan zuten guztia harropatu zuten.
Independentzi gerran, 1813an, Gasteizko batailatik ihesean soldadu frantsesek berriro ere Altsasu txikitu zuten.

Toponimia ibilaldiak II

Maibelo (Maibélo)

Maribelo, 1758. urtean.

San Pedroko zelai (Sanpedrokozelaí) Sanpedrokobide- Sanpedrokoerréka- Sanpédroko etxárte

Inskripzioa dela eta...

Tradizioak dio Nafarroako lehen erregea, Garzia Ximenez, baseliza honetan izan zela izendatua: "AÑO DE SETECIENTOS Y DIEZISIETE A VEINTE DE HENERO EN ESTA IGLEJA / DE SAN PEDRO DE LA VALLE DE BURUNDA FUE ELECTO Y UNGIDO POR / PRIMER REI DE NAVARRA GARCÍA XIMENEZ Y ESTA ELECCION CONFIRMO / EL MESMO AÑO EL PAPA GREGORIO SEGUNDO COMO PARECE POR SU BU LA LA QUE LA TIENE LA DICHA VALLE EN SU ARCHIVO. FUE REEDIFI / CADA ESTA IGLESIA EL AÑO 1647".

Tradizioa eta errealitatea ez datoz bat. Aipaturiko bula ere ez da sekula gauzatu, nahiz eta Hiribarren idazleak bere "Euskaldunak"-en bula horren kopia agertu, bula apokrifo.

Inskripzioa dugu dokumentu bakarra: tradizioa eta kondaira nahastu egiten dira.

Historiak zera dio: Eneko Aritza, Iruñeko erreinuko lehen erregea (824. urtean)



Iñigo Ximenez, "Aritza" izengoitikoa, hautatu zuteneko marrazkia.

"Nafarroako Kondaira" (Caja de Ahorros Municipal)



Garzia Ximenez "I. erregea"?

"Reyes de Navarra" - Jose Yanguas y Miranda

KOKAPENA DELA ETA:

San Pedroko ermita ondoko aritzen-gatik ez balitz, inguruko tontor guztietatik ikusiko litzateke, Barandiaranek dioen bezala.

KONDAIRAK:

Ataundik San Pedroko erromeriara etortzen zirenek emakumezko jentil bat ikusten omen zuten Jentileioan eserita, bere burua orrazten. Hala esan omen zuen beste jentil batek: "Akabau da jende umana, da eldu da perrua". Kristautasunaren indar hartzea zela medio esan omen zuen. (J.M.Barandiaran, "Obras Completas").

Beste batzuetan, emakumezko jentilek ardazketan egiten zutenean ardatza ondoko aitzetan agertzen zen eta mataza San Pedroko zelaian. (J.M. Satrustegi, "Mitos y creencias").

